

Abenduko egune  
Argitu orduko ilune.

M.Iz.

1991-ko Abenduaren 12-koa  
5,00 libera

ISSN 0767-7643

Nº 2132



- Maastricht etik nolako Europa ..... (ikus 2)
- Errusiaren desagiteak kezka ere ..... (8)
- Mikel Laboa D. Garazin ..... (2)
- Oldarraren zilarrezko ezteiak ? ..... (6)

## HENDAIA



Mugako enpleatuak arrangura... ezin jakin oraino Europari buruz diren kanbiamenduekin zer bilakatuko diren... (Arg. C. Borderie)

## MIKEL LABOA D. GARAZIN,

### abendoaren 14 an

Bigarren maila Xalbador Ikastegiko burasoek galdeginik, heldu den abendoaren 14 an berriz ere Garazira heldu zaiku aspaldiko gure lagun Mikel Laboa. Gure atxikimendua erakusteko eta bere kantaldietan senditzen dugun atseginez eskertzeko hemengo kantari eta musikari talde ezagun batzuek emanen dituzte lehen partean Mikelen kantu zonbait, beren gisan, berek senditzen dituzten eta sendiarazi nahi dituzten moldean.

Gau berezi hunek badu beste helburu bat ere : Seaskako bigarren mailaren erakaskuntza aintzina eremaiten laguntzea. Alabainan 1983-ko eskola sartzean 48 haurrekin egin bazen 1991 an 196 gaztek ikasten dute Kolegio eta lizeoan eta 1993 an 300 izanen dira. Heldu den ekainan bakalorea presentatuko dute lehen aldikotz ikastolako gazte batzuek ! Azkenian, ama ikastolatik unibersitatearaino, euskal erakaskuntze errota- ren itzuliaren egitera heltzen da ! Erakaskuntzak itzulia egiten du, zorigaitzez hortaroko behar den diru laguntzak ez du segitzen. Euskarazko kolegio eta lizeoa frantsez gobernuak ez ditu oraino ezagutu nahi. Ondorioz erakasleen ilabete sariak eta gela berrien eraikitzeak, buraso eta laguntzaileen gain gelditzen dira : guhaurek sortu, handitu, eroki, ordaindu eskola dretxo publiko bilaka arazten dugu...

1982 urteko arazo berekin gira egun 1992 an kargu zozialak eta ixtanteak soldatak ezin ordainduan... 1000 harrez goiti ditugu ikastoletan, 90 lan postu !... 22 urteren lana, elkartasuna, bizitasuna, borroka, ez dira erortzera uzten ahal !...

Hortarako gau horren bidez berriz hasiko dugu Seaskaren alderako sustengu eta laguntza kanpaña haundi bat, behin betikotz gure erakaskuntz osoa onartua izan dadin.

Gure aments, nahikeri eta helburu hauek elgarrekin aintzinarazteko zatozte denak Garazira abendoaren 14 an arratseko 9 ak eta 1/2, Vauban sala (berotura) adixkidantza beroean, entzunen dituzue lehen partean

- Jojo eta Ramuntxo
  - \* bango-biga
  - \* matxa baten lehen holak
- Irigoyen anaiak
  - \* izarren hautsa
  - \* — komunikazio, inkomunikazio
- Kolore
  - \* Nere ama
  - \* Kontuz sortu naiz
- Josu Ibarloza
  - \* Oihaneko pagoa blai
  - \* Egoak

Ongi etorri deneri Mikel Laboaren ohorretan baita seaskaren aintzina eremaiteko xevedean.

**2. maileko burasoak**